

Hernaniko kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 24a, ostirala ::: 4.623 zk. ::: www.kronika.net



❖ KALDEREROAK

Afarirako, izen ematea

Kaldereroen konpartsa aterako da Hernanin datorren larunbatean, otsailak 1. Urtero bezala, afaria antolatuko dute Elur Txorin eta gaurtik aurrera eman liteke izena. ||

❖ SANTA AGEDA

Entsaioa gaur, Ereñotzun

Santa Ageda da otsailaren 4an, eta Ereñotzun entsaiatzen hasiko dira. Gaur, Ur Mian, 20:30etan. Bigarrena, urtarrilaren 31n izango da, leku eta ordu berean. ||

❖ EAJ-HI!

Antziolako bizilagunekin, bilera

Bizilagunekin bilera egingo dituzte EAJ eta HI! alderdiek. Jakin nahi dute bizilagunekin duten iritzia Udalaren gestioaren inguruan, zer aldatuko luketen, zein diren beharrak... Aurrenekoa bihar izango da, Antziolako auzo elkartearen egoitzan, 10:30etatik 12:30etara. ||

❖ PRESO ETA IHESLARIAK

Enkartelada, gaur

Preso eta iheslari politikoen senideek enkartelada egingo dute gaur herrian barrena, 20:00etan abiatuta. *Errepresaliatuak* etxera lelopean izango da. Dei egiten diete herritarrei kalera ateratzeko eurekin batera. ||

❖ ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Aurkezpena, bihar

Eskubide Sozialen Karta martxan jarri dute krisi egoera desberdinei konponbide bateratua emateko. Hernanin talde bat ari da lanean eta aurkezpena bihar egingo dute, 11:30etan, Biterin. ||

HERNANIKO UDALA ETA BIC BERRILAN S.A.REN ARTEKO HITZARMENA

Herriko enpresei laguntza emango die Bic Berrilanekek, arlo teknologikoa hobetzeko

Hasteko, industria arloko 17 enpresaz osatutako zerrenda egin dute eta datorren astean hasiko dira enpresa horietara bisitak egiten. Beharrak aztertu ostean, bitartekoak eskainiko dizkiete.

HITZARMEN bat sinatu zuten asteazkenean Hernaniko Udalak eta Bic Berrilanekek. Hitzarmen horri esker, Hernaniko enpresei laguntza emango die Bic Berrilanekek, arlo teknologikoa hobetzeko.

Urteetako harremana dute bi entitateek eta hitzarmena, azken hilabeteetako elkarriketen fruitua izan dela azaldu zuen Luis Intxauspe alkatea. Ekimenaren garrantzia ere azpimarratu zuen: «Egindako diagnostiko batek erakutsi digu, Hernaniko enpresa gehienak industria sektorekoak direla eta asko zaharkituta daudela teknologiari dagokionean. Euren ezaugarriak direla eta, edo baliabide urriek eraginda, ezin dute egokitu eta Bic Berrilanekek laguntza emango die».



Luis Intxauspe alkatea eta Marisa Arriola Bic Berrilanekek zuzendaria hitzarmena sinatzen, herenegun.

Laguntza eta bitartekoak, dohainik

Bic Berrilanekek langileek Hernaniko lantoki desberdinak bisitatuko dituzte datorren astetik aurrera eta berrikuntza eta teknologiaren ikuspuntutik, daukaten egoeraren azterketa egingo dute. Azterketaren ostean, teknologikoki egokitzeko informazioa, harreman-sareak, laguntza eta bitartekoak eskainiko dizkiete lantegiei, dohainik.

Egingo dutenaren berri eman zuen Marisa Arriola Bic Berrilanekek zuzendaria: «Enpresak ezagutuko ditugu; daukaten beharrak. Ekimen berriak bultzatuko ditugu eta laguntza emango diegu innobazioan. Zentzu horretan, gerturatzeko lagunduko diegu berrikuntza teknologikoetara. Enpresa horietan pertsona

kualifikatuak sarterako orduan ere aholkuak emango dizkiegu».

Arriolak gaineratu zuen, hitzarmena posible izan dela Udalak eta Bic Berrilanekek helburu berak dituztelako: «Ekintzaile izatea bultzatu nahi dugu Hernanin, eta hemengo enpresek duten beharrei erantzun».

Interesa duten enpresa guztiei irekia

Hasteko, industria arloko 17 enpresaz osatutako zerrenda bat egin dute. Eta esan bezala, datorren astetik aurrera bisitak egingo dituzte enpresa horietan. 2 hilabeteren buruan bisita guztiak egitea aurreikusten dute. Dena dela, Arriolak azaldu zuenez, «helburua da Hernaniko enpresa

guztien %90engana iristea».

Hori horrela, dei egin dute interesatuta dauden enpresa edo pertsonak harremanetan jarri daitezela eurekin. Udalaren Enplegu Zerbitzura deitu (943 33 68 02) edo Bic Berrilanekek (943 000 999 -Marian Gabilondo).

Bic Gipuzkoa Berrilan, 21 urtez

Bic Gipuzkoa Berrilan da Gipuzkoako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa (EBZ). 1993an ekin zion bere ibilbideari, helburua izanik, berrikuntzarekin zerikusia duten enpresen ekimenei bide ematea. Urte hauetan zehar 270 enpresa sortzen lagundu du Miramongo Parke Teknologikoan eta Eibarren dituen zentroetatik. ||

«Enpresetara bisitak egingo ditugu. Enpresa horiek ezagutuko ditugu; daukaten beharrak. Ekimen berriak bultzatuko ditugu eta laguntza emango diegu innobazioan. Zentzu horretan, gerturatzeko lagunduko diegu berrikuntza teknologikoetara»

GARDANBERA
natura eta osasuna

EKODENDA

Dagoeneko zabalik

Antziola 2 943 33 68 43

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA

GAUR
 Euria egingo du barra-barra eta etengabe. Temperaturak gora egingo du, zertxobait: Min.7° / Max.12°

BIHAR
 Ez da aldaketa askorik espero. Euria egingo du eta eguerdik aurrera, tarteka, atertu egingo du. Temperatura, antzeko: Min.9° / Max.13°

(euskalet)

EGUZKI EKOLOGISTA TALDEA- PRENTSA OHARRA:

«Donostian izaten den usain txarra Zikuñagako papeleratik dator»

Donostiako Udalak egin du ikerketa Eusko Jaurlaritzarekin batera, eta Eguzkik honen berri eman nahi du, Kronikara bidalitako prentsa oharrean.

BADIRA urte batzuk Donostiako bizilagunak kezu direla, usain txarra dela eta. Zenbait auzotan izaten da usain txar hori, eta jatorriaren inguruan hipotesi asko izan dira orain arte. Arazoa medio, Donostiako Udalak ikerketa bat egiteko konpromisoa hartu zuen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Eguzki ekologista taldeak ikerketa horren emaitzaren berri eman nahi du, Kronikara bidalitako prentsa oharrean bidez.

«Zurumurruek ziotena konfirmatu da»

Ikerketa Kataluniako enpre-

sa batek egin du, eta Donostiako Ingurumen Batzordean eman zuten emaitzaren berri. Eguzkiren esanetan, ikerketak konfirmatu du zurumurruek ziotena: «Usain txarra Zikuñagako Papelera Guipuzcoana S.A enpresatik dator. Ikerketan ikusi da, usain txarra dimetil sulfuroak sortzen duela, eta sulfuro hori, papeleraren produktioaren momentu batean sortzen dela».

Eguzkik ontzat jo du ikerketa, eta orain pausok emateko garaia iritsi dela dio: «Donostiako Udalarari eta Eusko Jaurlaritzari es-

katzen diogu ikerketaren berri emateko, jendeak jakin dezan usainaren jatorria zein den. Bestetik, Papelerari eskatzen diogu pausok emateko, usain hori desagertarazi edo ahalik eta gehien gutxitzeko».

Papelerak askotan erantzun izan du legea betetzen duela, baina Eguzkik dio, ez dela nahikoa: «Usaina deserosoa da Urumeako bizilagun guztientzat. Ez dago ordenantza zehatzik usain kontaminazioa erregulatzeke, baina bizi kalitatean eragina du. Arazoari aurre egiteko garaia iritsi da».

ELIZA - HERNANIKO PARROKIARTEA

Nola hezi seme-alabak baloreetan?

Guraso eskola Inmakuladan izango da; izena eman behar da.

AURREKO urteetan bezala, Guraso eskola eratu da Inmakuladan aurten ere. Gurasoei nortasunean nola hazi eta seme-alabei baloreetan nola hezi erakustea da

eskola hauen helburua. Lehendabiziko topaketa otsailaren 7an izango da, 16:45etatik 18:00etara. Izena urtarrila bukatu aurretik eman behar da Inmakuladan

edo Parrokiko bulegoan.

Bestetik, Euskal Telebistak Gabonetan Hernanitik eman zituen mezak bideoan izan nahi dituztenek izena eman behar dute Parrokiko bulegoan.

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Lurdes Mateo gogoan

Petsona haundi bat galdu dugu CD Hernanin. Astelehenean Lurdes Mateo Mujika, gure lagun maitea, hil egin zen. Gure erreferentia izango da beti, bai arlo pertsonalean eta baita kirol arloan ere. Gure bizitza ederragoa egiteaz gain, Lurdes klu-

beko aurreneko emakumetako izan zen. 2010an etorri zen eta klubari balio eta pisu haundia eman zion. Gure doluminik sentikorrenak eman nahi dizkiogu familiari.

Idoia Esnaola Agesta
CD Hernani Atletismo
taldearen izenean

(*Erredakzioan euskeratua)



OTSUA-ENE
 Astearthetik igandera eguerditan irekita
 Osiñaga auzoa
 Tel. 943 55 68 94

MARISCOS HERNANI
 609 67 43 44
 943 55 51 56
 Mariskoan espezialistak
 KALE NAGUSIA, 20
 20120 HERNANI
 GIPUZKOA

ESKU PELOTA

Partidu ikusgarria gaur: momentuko lau pelotari onenetakoak aurrez aurre

Arrieta eta Aizpitarte dira senior mailan momentuan dauden pelotari onenetakoak. Gaurkoan aurkari izango dituzten Artola eta Telletxea ere, ez dira makalak. Ikusteko moduko partidua izango da Kiroldegan, iluntzean. Euskal Ligako partidua izango da. 20:00etan hasiko da jaialdia, eta aurretik beste bi partidua. Udaberri Torneoaren barruan, jubenetan, Cisneros eta Rodriguezek jokatu dute Tartaloetxeren kontra. Eta Euskal Ligan baita ere, seniorretan, San Sebastianek bakarka, Markinaren kontra.

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, hiru partidua izango dituzte gaur pelotari hernaniarrek: Ziotza/Lasa-J.Garmendia, 18:30etan Zizurkilen; Oiarpe/Larrañaga-Salaberria, 19:15etan, Oartzunen; eta Zestoa/Larburu-Gorrotxategi, 19:00etan, Zestoa. ||

GALDUTAKOAK

Txistu bat galdu zen, ostiralean

Ostiralean txistu bat galdu zen Hernanin. Oihalezko poltsa beltz batean zegoen gordeta. Bilatu duenari eskertu egingo zaio. Deitu: 639 42 99 23. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

PEDRO MACICIOR PIKABEA
EREÑOTZUKO FAMILIAREN PARTETIK
 Hernanin, 2014ko urtarrilaren 24an

I. URTEURRENA
Manoli Iraola Toledotxipi
 2013ko urtarrilaren 28an hil zen, 83 urterekin
 -Goian Bego-
 Manoliren senitartekoei urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuen guztiak.
Urteurreneko meza, ETZI, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
 Hernanin, 2014ko urtarrilaren 24an

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ZORIONAK
aitona
Alfredo!
 90 urte
Seme-alabek, bilobek
eta birbilobak maitasunez